

## BAKEA EZ DA BEREZKOA, BAINA BAI BEHARREZKOA

1

Anai-arrebok, hau da sugarra  
amatau ezin doguna:  
euskaldunaren kontra jarri da  
bere anai euskalduna!  
Errazoiz nahiz atxakiz  
horreik garbi nok dakiz...  
Galdu al dogu zentzuna?  
Etxea sutan dagola jakin  
eta auspoaren jarduna!

3

Askoren ustez gizon haundiak  
behar dau bihotz gogorra,  
baina bakeak egitekotan  
behar da tolerakorra.  
Harri, tiro ta kate,  
gogorrena alkate...  
Gizona barik zekorra!  
Alkar onartu ezkeru dator  
bake onaren altxorra.

2

Ez dira bardin eztabaida ta  
patxadaz alkarrizketa,  
batetik dator bizipoza ta  
bestetik, barriz, hilketa.  
Zuzen nahiz aldrebesa,  
nunahi bada jueza,  
ta nok berotu kasketa...  
Alkar onartu daigun guztiok,  
bestea da barriketa.

4

Bakea egin leiken gizona  
da bakean bizi dana,  
lege zaharra da: ezin da emon  
nork beretzat ez daukana.  
Bakearen usoa  
pozgarri ta gozoa,  
betor lehenbailehen gugana;  
oi Euskaldunok, merezi dau ta  
egin daigun apur bana.

A.Martzel